

IKERLARIEK, ERAKUNDEEK EDO ERABILTZAILA BAIMENDUEK AHOA-AHOZKO HISTORIAREN ARTXIBOAN DAUDEN MATERIALAK ERABILTZEKO, ERREPRODUZITZEKO ETA ZABALTZEKO ARAUAK

AHOA-AHOZKO HISTORIAREN ARTXIBOAK, bere funtsetan dauden artxiboak/agiriak erreproduzitzeko, zabaltzeko, plazaratzeko eta eraldatzeko eskubideen jabegoa duen heinean,Jaunari/Andereari/Erakundeari (ezabatu egoki ez dena) lehen aipaturiko funtsak kontsultatzeko, eta ikerketarako, irakaskuntzarako edo/eta kultura-zabalkunderako erabil ditzan BAIMENA ematen dio, honako arau eta baldintzen pean:

1. Eskuratzen dituen artxiboen/agirien osotasuna errespetatzea.
2. Artxiboa/agiria kasu hauetan baino ez da erreproduzitu oso-osorik: diru-irabazi asmorik gabeko kultura- eta ikerketa-helburuetarako eta b. honako hitzen bidez jatorria aipatzen denean:

*"AHOA, AHOZKO HISTORIAREN ARTXIBOA
Oroitzapenaren Artxiboa
xxxxxxxxxxx Bilduma
Egilearen izena (elkarrizketaren egilea)
Lekukotasunaren izena eta data"*

3. Artxiboaren/agiriaren zati bat baino erreproduzitzen ez bada, hori jakinarazi egin behar da, "laburpena" hitza ezarriz:
4. Artxiboak/agiriak ikerlanetan erabiltzeko badira, eta lan horietan erreproduzitzen badira, erabiltzaileak/egileak/ikerlariak AHOA-AHOZKO HISTORIAREN ARTXIBOko Liburutegi Teknikoari argitalpenaren/lanaren/ikerlanaren ale bat emateko konpromisoa hartzen du, eta gainera, argitalpenean/lanean/ikerketan zehar bildu dituen antzeko materialak ere bertara eraman beharko ditu, Oroitzapenaren Artxiboaren funtsak handitzeko asmoz.
5. AHOA-AHOZKO HISTORIAREN ARTXIBOAK ez ditu bere gain hartzen bere funtsetan dauden artxiboetan/agirietan jasotzen diren iritziak, iruzkinak edo/eta adierazpenak.
6. Baimen honek bere barne hartzen dituen funtsetako informazioa eskuratzeko, aurretik baimen honetan dauden arauak eta baldintzak onartu beharko ditu erabiltzaile-eskatzaileak. *(Informazioa Internet bidez edo bitarteko informatikoak erabiliz eskuratuko dela aurreikusten denez, aurretik aipatutako arauak/baldintzak agerian jarri beharko dira, eta eskatutako informaziorako sarbidea eman baino lehen onartu egin beharko dira)*